

ELIZ-ZALE NAGUSI BI

(Loiolako Inazio ta Joan Kurutzekoa)

Inazio bateatu zala bosteun urteak laster ospatuko doguz. Urte beratan beteko dira Joan il zala laureun urte. Izakeraz eta bizikeraz, eziketaz ea ekintzaz ezbardiñak izan dira gizon audi bi oneik. Jainko-sentikerak eta eliz-sentikerak be, naiz ta nai ez, ezbardiñak izan bear.

Ezbardiñak eta antzekoak. Gitxi gora-bera, sasoi batekoak dira santu oneik. Giza-egoera eta eliz-egoera, bardin samarrak ziran. Elizaren bearrizanak be antzekoak. Eta, batez be, Espiritu Santu bat eta bakarra zan, biongan, Irakasle ta Bultzatzaire nagusi. Augaitik, ezbardintasunaren barruan senidetartekotasun bat ikusgarri ta miragarri nabari dogu.

Saio onetan lenengo bakoitzaren eliz-erasprena aitatuko dogu. Eta gero elizeraspren bi oneik alkarren artean dauken bai kidetasuna, bai bardintasun-eza aitatuko doguz.

I. LOIOLAKO INAZIOREN ELIZ-ZALETASUNA

Eliza Inazioren bizitzan ardura bizi-bizia da. Eliza dau benetan biotzeko. Eliza barristau, garbitu ta birmoldatzea da bere asmo sendoa.

1. Inazioren Eliza ez da, bere sasoiko batzuentzako lez, oideietako eliz garbia, ikusgai, soindun, erakunde dan Eliza baño. Eliza ori dau maite; eliza ori garbitu nai dau: eliza orren esaneko leialda da.

Ez bere akatsak eta baltzuneak ikusten ez ditualako. Elizgizon eta eliz-era-kunde batzuen itsukeriak auzipetu ta espetxeratu eben. «Mis superiores —diño— hicieron tres veces proceso contra mí; fuí preso y puesto en cárcero por cuarenta y dos días»¹.

2. Eliz-gizon eta erakunde onein itsukeri ta adarkadak beingo baten desorekatu egiten dabe. Baña laster biurtzen dira bere sinismarentzako osagarri ta ongarri. Elizari benetako indarra nundik datorkion irakasten dautse: ez politikatik, ez kondaira ospetsu batetik; ezta bere buruzagi diranen gaitasunetik. Eliza eliza da Jesukristoren gorputz mistiku dalako ta Espirituak biztu ta zaintzen daualako².
3. Ain maite dauan Eliza au Inaziok Kristoren *emazte lez* ikusten dau. Kristori begira emazte bada, guri begira *ama* da³.
4. Eliz ikusgai onen barruan, pertsona ta erakunde batek dabe beretzako aparteko garrantzia: Aita Santuak eta aitasantugoak. Bere ta Lagundiaren asmoak Aita Santuaren auzipean jartzen ditu. Aita Santuaren naia ta agindua dira beretzako ekintza ta aukera guztietai burubide⁴. Ta elizbarriti bakoitzean gotzainak beretzako antzeko zerbait dira. Jesu-lagun diran guztientzako ona emen bere agindua: «hagan recurso al prelado y lo reconozcan por padre y señor»⁵.
5. Baña Inazioren elizkoitasunak ez dautsoz adimena ta naimena bakarrik irabazten; bere *sentipena* be oratuta gelditzen da. Elizari buruz egin eban idaztirik ezagunenaren izenburuak olantxe diño: «Reglas para sentir con la Iglesia». Arau oneik eliz-mistika dauke mamin-mamiñean. «Arau onein elburua auxe da: zelan eliz zati bizi izan; ze jarrera artu berari buruz; zelan eliza barruan bakoitzaren zeregiña billatu, zelan bere misterioz asetu; zelan bere magalpean emonkor izan; zelan bere sabelean Espirituak aurkitu»⁶.
6. Eliz-sentipen onen erro nagusia Kristorenganako eraspenean dago. Inaziok Eliza maite ba dau, barrutik ezagutzen daualako da. Ta eliza barrutik ezagutzen badau, Kristo bera barrutik ezagutzen daualako da («conocimiento interno de Nuestro Señor Jesucristo»). Jesus onelan ezagutuaz batera, Jesus Elizan bizi dala gero ta sakonago ta gozatsuago ulertzen dau. «Kristo Señarraren eta Eliza emaztearen artean Espiritu berbera dabil gu gidatu ta zaintzen»⁷.

¹ EPP. J., 296; BAC², 662.

² Cfr. Epp. VIII, 464; BAC² 906.

³ Cfr. Ejerc. 353; Epp I, 242.

⁴ Epp. IX, 527: «Aunque las necesidades fuesen menores, la obediencia del Vicario de Cristo Nuestro Señor las harían mayores».

⁵ Epp. VII, 327; BAC² 877.

⁶ CORELLA, J.: «Ejercicios espirituales para desarrollar sentido de Iglesia» *Maur* 62 (1990) 7.

⁷ Ejerc. 365.

7. Eliz-sentipen au argi-mutil dauala, Inaziok bere bokaziñoa aurkituko dau: eliza au barritzau, birmoldatu. Eliz onetan garia ta galtsua bereiztea, hierarkia buru dala Eliz-hierarki onen «agindu guztia goratu, biotz bizkorrez billatuz bera zuritzeko ta iñoz be ez bera iraintzeko»⁸. Bere asmoa ez da Espirituaren eliza barri bat sortzea, Espirituz eliza betetzea baño⁹.

II. KURUTZEKO JUANEN ELIZ-ERASPENA

Elizaren misterioa fedearen bidez susmatzea da, gai onetan, Kurutzeko Joanen elburua. Elizaren mamiña ta azala biok ditu gogotan, Kristoren gorputza mamin eta azalez osotua dalako. Baña azalera maminetik elduko da, ta ez alderantziz.

1. Elizaren mamiña adierazo aurretik, elizaren *iturria* idoroko dausku, lenengo ta bein, Kurutzeko Joaneak. Iturri au Irutasun Deuna da. Irutasunaren barruan asmatua da eliza. Irutasunagandik jaioa. Irutasunak daroa munduan zear. Irutasunerantz da bere bidea. Irutasuna da bere elmuga¹⁰.
2. Iru Pertsona Santu bakoitzak utzi dau elizan bere ikutua. Aitak bere Semearentzako emazte lez asmau dau, izadi osoa senar-emazte bi onein jauregi dalarik¹¹. Semeak bere emazte au billatu, askatu, argitu, garbitu, biziz aberastu dau¹². Espiritu Santua, ura ta sua batera dan Espiritu Santua, da elizan egile, gidari ta bultzagile nagusia¹³. Berak Maria gerizpean zaindu ta oparotu eban antzera, eliza be zaindu ta oparotzen dau.
3. Elizaren mamiña erakustean, Kurutzeko Joanek izen bi ditu sarri gogotan: *emaztea ta ama*. Eliza Kristoren emaztea da, Eliza kristauen ama da. Elizaren *izan* bi oneik, elizaren *izana* adierazoten dabe: *maitasuna*. Maitasuna da, ain zuzen be, emaztetasunaren eta amatasunaren uriña, kutsua ta muiña. «Eccllesia est foedus amoris». Eliza maitasunezko alkartea da. Maitasuna da elizaren arima¹⁴.

⁸ Ejerc. 361.

⁹ Cfr. ARRUEPE, P. «Amor de Ignacio por la Iglesia y el Papado». «La identidad del jesuita en nuestros trabajos» 1967, 453-458.

¹⁰ CRISOGONO DE JESUS, «Vida de San Juan de la Cruz». Madrid 1964-5, 130-131.

¹¹ Cfr. «Romance sobre el evangelio... acerca de la Stma. Trinidad» 4.

¹² Cfr. JOSE VICENTE DE LA EUCHARISTIA. «El tema Iglesia en San Juan de la Cruz» *Ephem. Carm.* XVII (1960) 374-384.

¹³ L. 3,46.

¹⁴ JOSE VICENTE DE LA EUCHARISTIA. «El tema Iglesia en San Juan de la Cruz» *Ephem. Carm.* XVII (1967) 136: «Si se nos pidiese una definición o descripción de la Iglesia conforme al pensamiento del Santo, no dudaríamos en dar la siguiente: *una sociedad o compañía de amor, alianza de amor entre Dios y las criaturas*».

4. Baña arima onek badau bere gorputza; mamin onek badau bere azala. Azal au ez da berez ezelango eragozpenik mamiñarentzat. Mamiñak azala bear dauan antzera, maitasunak erakundeak bearrezko dau. «La estructuración más externa y visible no es ningún... estorbo al desarrollo interior o espiritual de la Iglesia... sino señal de la pujanza de vida que circula en ella»¹⁵.
5. Eliz-egituren artean eliz-agintaritza da, Joanen uste osoz, ausi eziñeko bat. «No es mi intención apartarme del sano sentido y doctrina de la Santa Madre Iglesia Católica, porque en tal caso totalmente me sujeto y resigno... a ser mandado»¹⁶. Jesusen ikasle da eliza. Baña Jesusengandik irakasle izateko zeregiña artu dau. Ta hierarkiari dagokio irakasletza au. Espirituak arimari egiten dautsazan iragarpeneak ez dabe fede-artikulu barririk iragarten, elizak irakasten dituanak sakonago ulertu-erazo baño¹⁷.
6. Elizaren misterioa, Joanen irakaspenaren arauz, arima bakoitzean azurmamintzen da. Arima bakoitza elizaren «miniatura» bat da. Elizaren antzera fedearren argi-illunpean doa Jainkoaren bideetatik zear. Elizaren antzera, Espirituaren aparteko ikutuz eldu daiteke gogo-ekontzara (matrimonio espiritual). Arima da, ba, elizaren irudia. Elizaren *irudi* dalako, arimak eliza dau *eredutzat*. Baña eliza ez da arimaren eredu utsa. Eliza *bide* dala datorkio arimari fedeak ta Jainkozko bizia¹⁸.

III. BARDIÑAK ETA EZBARDIÑAK

Zearka aitatu doguzan antzak eta aldeak zuzenean gogoratzea gelditzen yaku. Euskalduna bat, gaztelarra bestea; eliztarrak biak. Eragiña bat, baketsua bestea; goitik-berako gizonak biak. Eginkorra bat, soaldi zalea bestea, santuak biak.

1. Bardiñak

a) *Elizaren seme maitale bi*

Biontzako eliza *ama* da bere bidez Jesukristoren bizia datorkigulako. Biontzako eliza Kristoren *emaztea* da beragandik bizi dalako ta biziemoille izatea artzen duala lako.

¹⁵ Ibid., 102.

¹⁶ «Subida...». Itzaurrea, 2.

¹⁷ Cfr. JOSE VICENTE DE LA EUCHARISTIA a.c. 104.

¹⁸ Cfr. ibid., 130 ss.

Biok dira seme *maitale*. Buru-biotzez, maitasuna lokarri dala, elizari lotuak. Ez ebazan beti eliz onek ondo artu. Aitatu-eza ta jasapena bera be ezagutu eben. Baña jazoera negargarri oneik ez ebezan bata ez bestea garraztu. Jasapenak euren eliz-maitasuna garbitu ta sendotu egin eben.

Garbitu ta sendotu bai, baña ketotu ez. Naiz ta susmu txarpean erabiliak izan, bide barriak billatzen eta aurkitzen saiatu ziran. Eliza maite ebelako euren burua baño geiago.

b) *Elizaren misterio osoa onartzen dabenak*

Eliza erakunde uts lez ikustea erreza da. Eliza «espiritu uts» lez ainbatek iruditzen dabe. Espiritu ta gorputz lez, mamin eta azal lez, santu ta garbiketa bearrezko lez ikustea ta onartzea fede bizi ta elduaren emaitza bikaiña da.

Inazio azaletik asi ta mamiñera elduko da. Joanek maminetik azalerako bidea egingo dau. Biok elizaren izate osoa fedez aurkitu ta maitasunez onartuko dabe.

c) *Elizaren agindupean bizi, lan egin, il*

Bide barrien urratzaille izan ziran bata ta bestea garai arriskutsu batean. Baña eliz-gizonen agintearik izentatzen eutsen ertzen barruan. Izan ziran euren sasoian muga orreik eztanda eginaraso oi ebenak. Eurak ez. Zugaitzak iñausketa bear dauan lez, kristiñauak be eliz barruan euren asmo batzuek moztu bear ebezala garbi ekien. «Frutu ugariago emon egien».

d) *Eliza barrutik garbitzeko ta sendotzeko gogoa*

Elizaren betiko makurkeria epelkeria da. Motelkeria da bere pekatua. Motel dagolako olabeorra ain errez azten da bere barrutian. Motel dagolako makaltzen dabe ain arin aixeak eta leiak.

Elizan, itxasontzian lez, lokartuta dagoan Jesus itxartutea, ona emen santuen zeregiñik beiñena. Elizan erdi giltzapetuta dagoan Espiritu askatzaleari laguntza eskeintzea, orra or santuen alegiñik beroena. Onetan Inazio ta Joan benetan bikaiñak.

2. Ezbardiñak

a) *Elizaren nortasuna, elizaren jokabidea*

Joanentzako eliza zer dan, ori da untzea. Joanen teologia aberatsagoa da. Iru-tasuna iturburu dalarik, Joanen eklesiología sakona da.

Sakontasun au olerti izkuntzaz josita ta igortzita agertzen yaku. Izan be poesia da misterioaren izkuntzarik beiñena. Inaziorentzako zelan *elizak* jokatu ta zelan *elizan*

jokatu, ona emen bere buruaustea. Elizaren eginbearrak eta arauak erdi-erdian ditu. Jokabideak arau modura zeatz esaten saiatzen da batez be.

b) *Elizaren arima ta gorputza*

Gorputz eta arimaz osoturiko eliza biok onartuaz, elizaren arima da Joanen begiaren erdi-unea; elizaren gorputza, osteria, Inaziorena. Zeatzago, Joanek arima gorpuztu lez ikusten dau eliza; Inaziok gorputz animatu lez.

c) *Kristoren eliza, Espirituaren eliza*

Eliza Kristorena ta Espirituarena dala argi dago. Batzuek Kristorena utsean balitz lez ikusteko arriskua daroe. Beste batzuek Espirituarena bakarrik balitz lez begiratzeko jokerea agertzen dabe. Gaurko-gaurkoak dira ikuspegi bi oneik. Ertz biak alkarri ondo oratzen dautsenean, bata ta bestea legezkoak eta onuragarriak dira elizan.

Gure santu biak onetan irakasle parebakoak dira: Kristoren eta Espirituaren eliza da euren eliza. Ni baño jakitunagoak esango dabe Inazio «Kristologiku» ta Joan «pneumatologiku» ete diran. Biak izanik alderdi bietatik aberatsak. Irakasle baño ikasle naz ni gehiago. Irakasleak argitu dagiela gai au.

Bilbon apirillak 22
† JUAN MARÍA URIARTE
Bilboko Gotzain Laguntzailea

DOS GRANDES AMANTES DE LA IGLESIA

Estos dos santos en su manera de ser y vivir, en su educación y actividad, han sido diferentes, aunque, como es lógico, las coincidencias son también profundas.

— S. Ignacio en su intenso afecto a la Iglesia desea vivamente renovarla. Para él la Iglesia no es algo abstracto, sino palpable e institución, y hay que amarla como tal; pero no porque él no vea fallos y deficiencias. La fuerza de la Iglesia no viene de la política ni de una brillante historia, sino de ser *cuerpo místico* de Cristo. Y por lo tanto hay que *sentir* con la Iglesia, y conocer y amar en ella a Cristo.

— La adhesión de Juan a la Iglesia es profundamente íntima. Juan entra en el misterio de la Iglesia por medio de la fe: va a la superficie de la Iglesia desde dentro,

desde lo sustancial, esto es, desde el misterio de la Trinidad, donde el amor es fuente de todo.

— Ignacio y Juan son parecidos en ser hijos fieles y amantes de la Iglesia, en aceptar el misterio de la Iglesia en su totalidad, en vivir y trabajar bajo la dirección de la Iglesia, y en su deseo de renovar y fortalecer la Iglesia desde dentro. Pero también hay apreciaciones diferenciadas, así, por ejemplo, la eclesiología de Juan, en su tratamiento resulta más rica y profunda, y con mirada más intensa y constante al alma misma de la Iglesia.

DEUX GRANDS AMANTS DE L'EGLISE

Ces deux saints, dans leur manière d'être et de vivre, dans leur éducation et leur activité, ont été différents, quoique, comme il est logique, leurs ressemblances soient profondes.

— Saint Ignace dans son intense amour pour l'Eglise désire profondément la rénover. Pour lui, l'Eglise n'est pas quelque chose d'abstrait, mais une réalité manifeste et institutionnelle, et il faut l'aimer comme telle; mais ce n'est pas parce qu'il n'y voit pas des failles et des déficiences. La force de l'Eglise ne vient pas de la politique ni d'une brillante histoire, mais de ce qu'elle est *Corps mystique* du Christ. Par conséquent, il faut sentir avec l'Eglise, et, en elle, connaître et aimer le Christ.

— L'adhésion de Jean à l'Eglise est profondément intime. Jean entre dans le mystère de l'Eglise par la foi: il va à la surface de l'Eglise depuis l'intérieur, depuis le substantiel, c'est-à-dire depuis le mystère de la Trinité où l'amour est source de tout.

— Ignace et Jean se ressemblent par leur appartenance filiale, aimante et fidèle à l'Eglise, par leur acceptation du mystère de l'Eglise dans sa totalité, par leur vie et leur travail sous la direction de l'Eglise, et par leur désir de la renouveler et de la fortifier de l'intérieur. Mais aussi il y a entre eux des appréciations différencierées, ainsi par exemple, l'ecclésiologie de Jean qui la traite de manière plus riche et plus profonde, avec un regard plus intense, plus constant et plus durable sur l'âme même de l'Eglise.